**ERREPORTAJEA** GABONAK ARGAZKITAN · **GEHIGARRIA** JULIANA ZUBIZARRETA PANDEROJOLEARI
ELKARRIZKETA · **KULTURA** SAN ANTON EGUNEKO EKITALDIAK

# BARREN

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O  A S T E K A R I A · 2002KO URTARRILAREN 11/A




# Eurotu ala erotu?

# BASKO RE

GARBIKETA MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Sigmako industrialdeo - 7. eta 8. pabiloiak

TAILERRA



**MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI ETA PREST!**

GARBIKETA
40Opta.

GARBIKETA
RBITZ U A
IIAUTOZE



MANTENIMENDU OROKORRA • OUQ BALAZTA
*Eta* PNEUMATIKOEN AIDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

GARBIKETA
BEREZIA
70Opta.

*GARBIKETA*
*LEHORKETA*
*ARGIZARIA EMATEA*
50Opta.

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE
902 103 287

---

ITURAIN & ASOC.
ZERBITZU INMOBILIARIO INTEGRALAK
CONSULTING GROUP



# ELGOIBARKO ERDIGUNEAN

:Leku Ederren

- ETXEBIZITZAK
  . 2, 3 eta 4 logela
  Egongela-jangela
  . Sukaidea
  . 2 bainugela.



- GARAJE PLAZA ITXIAK
- KOMERTZIORAKO LOKALAK
- KALITATEZKO ERAIKUNTZA
  ORDAINKETARAKO ERRAZTASUNAK

**PROMOZIOA eta SALMENTA Muno, S.A.**
Trenbidearen Zumardia 13-15 • AZKOITIA
Tel. 943 157 007 - 609 473 933

**INFORMAZIOA IturaIn & Asoc.**
San Frantzisko, 44 - Tel. 943 748 801
Tel. 670 412 073



## Urte berria, txanpon berria

"Urte berri zoroak ere igerri", dio esaera zaharrak. Aurtengoan behintzat, ondo igerri diogu denok urte berriari. Izan ere, txanpon berria ekarri digu. Euroa iritsi da gure artera, eta badirudi turistak garela geure herrian bertan. Atzerrira joatera ohituta daudenak, ez diote txanpon berriari beldurrik, baina aspaldian herritik atera gabe dagoenak, ogia erosteko ere birritan pentsatu behar du. Bi aste daramatza euroak gure artean, eta oraindik pezetatan pentsatzen jarraitzen dugu askok. Urtezahar Egunean esan zitzaion agur pezetari, baina oraindik bizirik dagoela demostratu nahian dabil eskutik-eskura, euroak tokia kentzen diola ezin saihestuz. Euroa errealitatea da dagoeneko, eta bi hilabete barru, bera izango da gure poltsikoan jaun eta jabe, eta izan dadila!

Aldaketa guztiekin gertatzen den bezala, euroak hamaika buruhauste sortuko dizkigu hasieran. Pentsamendua aldatu beharra daukagu, eta eurotan bakarrik pentsatu. Esatea erraza da, baina ordaintzerako orduan, denok jakin nahi dugu gauzek zenbat balio duten. Iragarkiak dion moduan, eurotan zenbat balio duen ez baldin badakizu, ez dakizu zenbat balio duen. Hala ere, kalkulagailu bat poltsan eramatea ez da batere kostatzen, eta prezioak zenbat igo diren jakiteko oso erabilgarria izango zaigu. Izan ere, hori da euroak ekarri duen arazo laniena; prezioen igoera. Behin eta berriz errepikatu digute txanpona aldatu arren, salneurriak berdin mantenduko direla, baina prezioak borobiltzerako orduan denak gora egin du. Tentuz kontsumitzaileak baikara aldaketa guztiak ordaintzen ditugunak,

C O O N

Ainhoa Andonegi



## Estrategiak

Zer egin herri zahar honek aurrera egin dezan, zein bide hartu Euskal Herria gero eta komunikatuago bizi dadin, globalizatuagoa dagoen mundu honetan. Paktoaren bidea hartu izan dute batzuk beti. Eta ez legoke gaizki, baldin eta pakto hori berdinen artean ematen baldin bada. Arazoa da pakto hori ez dela berdinen artean ematen, eta azkenean, inposizio kutsua hartzen duela. Lehen guda karlista bukatu zenean, Bergarako paktoan, Espainiak Foruak onartuko zituela zin egin zuen "sin perjuicio para la unidad de la patria". Franco hil ondoren, eta errefonna politikoarekin batera, hiru probintzietarako Autonomia Estatutu bat martxan jani zen, espainiar konstituziotik eratorria zuzen-zuzen. Estatutu horri berdinen arteko paktoa deitzen diote batzuk oraindik ere, nahiz eta oso garbi egon Franco hil ondorengo prozesu politiko guztia Madrilgo benetako indarrek bideratu zutela, CIAren laguntzarekin, zerbait aldatuz, dena berdin gera zedin. Baina errealitatea tematia da eta 22 urte beranduago ere betiko arazoak sortzen dira: Madrilek nahi duen unibertsitate legea egiten du, Konbenio kolektiboen negoziazioak Madrildik zuzendu nahi ditu, ez du onartzen inongo Euskal Selekziorik, ez du onartzen Elkarte Autonomoen presentziarik Europan... eta berarekin ditu lege, epaile eta tribunal guztiak. Eta nahi duena egingo du Egia da onartutako eskudantzek kudeaketa maila garrantzitsua ematen dutela. Baina, hor dago tragedia: horiek kudeatzeko, marko politiko guztia onartu beharra dago. Eta kontraesan honetan mugitzen dira gure herriko sektore asko: daukatena ez dute soltatu nahi oso ondo dihoakielako. Baina Euskal Herriak ahots propioa izan nahi badu Europan eta munduan, pausoak eman beharrean gaude. Bestela, betikoan geldituko gara.

Pello Mendizabal

Kexak ............................................
MOt Z 10
gehigarria ........................................ 13
kiRolAk ........................................ 20
aGencla P4

## BATASUNA EUSKAL HERRIAREN KONTRA?

Izenburu horrekin eskutitz bat irakurri ahal izan genuen 2001eko BARRENeko azken alean. Batasunak Gasteizko Legebiltzarrera ez azaltzea, PPk eta PSOEk egin moduan, omen da arrazoia gu, orain Euskal Herriaren aurka aritzeko, EGIren ustez. Zenbait gauza kontatzea edo gogoratzea garrantzitsua da une honetan, Lehena Atutxa jaunak, Legebiltzarreko Iehendakaria denak, arautegia aldatu zuela, bere erabaki pertsonalez, era horretan PNV-EA eta IUren aurrekontuak aurrera atera ahal izateko (ez da ahaztu behar gutxiengoa direla Legebiltzarrean). Batasunak tranpa horretan ez zuen erori nahi izan eta sortutako blokeo egoeratik irteteko proposamen zehatz eta idatzi bat eman zion Ibarretxeri: kirol legearen garapena, Liburutegi Nazionalaren proiektoa berehala martxan jartzea, Estatistika Institutu Nazionalaren sorrera, Oinarrizko Errentarako aurrikuspenen igoera murritza zuzentzea, etxebizitza sozializazio-politika baterantz jotzea...

Goizaldera arte zai egon gara baina lbarretxek, berriro ere ezetz erantzun digu. PSOEra hurbildu nahi izan du korrika eta presaka. Giza eskubideen defentsarekiko konpromiso etiko eta morala eskatzen digu guri baina GAL antolatu zuen alderdiarekin batera joateko ez dauka inolako arazorik. Euskal Herria eraiki nahi dugulako (Euskal Herria diogu eta ez Elkarte Autonomoa, 7 herrialdek osatzen dutelako Euskal Herria edo Euskadi)arestian azaldutako proposamenak luzatu dizkiogu Ibarretxeri eta luzatzen dizkiegu euskal herritarrei. Bakoitzari berea, beraz. Guk Euskal Herri osoa eraikitzeko politika egin nahi dugu, ez bakarrik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako. Hori al da motiboa Euskal Hrriaren kontra egoteko? Hobe luke EGIk argituko balu PNVrekin ados dagoen egun daraman politika autonamistarekin edo, independentziaren alde, orain dela gutxi kalean irakurri ahal izan dugun moduan.

**P. M.**

**Elgoibarko Batasunaren izenean**

## NEGAR ALA BARRE?

200Ieko abenduaren 2Ieko **BARREN** alean, eta EGIren izenean, azaltzen zenari buruz diotsuet. Batasunak PNVri botorik ez emateari, alegia.

Euskal parlamentutik ostikoz bidali eta euren botorik ez dutela, ez zuzenean eta ez zeharkakorik onartuko, eta orain boto horiek ez dituztelako kexatzen dira. Batasunaren ponentzia ia guztietan PP-PNV elkarturik joan dira Batasunaren kontra. Hor ez dago akatsik, hor ez da ezer pasatu, "Dialogar hasta el amaneeer" garaian, hain zuzen ere.

Beharrean egon eta harrokeriaz, boto eske. Oso ondo.

**F. E.**

**N.A.N 15.277.480**

# Urruzunoren begi ezkutua



"Hitz egidazu arren nire herriari buruz" eskatu zion Errusiako enbaxadoreak dama ederrari, Beregan kokatu ziren gonbidatu guztien begiak, ikusle guztien belarriak, munduko telebista guztien kamerak. Beregan, gau hartako izar ederrenenarengan. Eta beregan ere ezagutzen ez zuen herriaren irrika..... Dama mutu geratu zen, isilik. Gure printzesarentzat urruti zegoen, urrutiegi dudarik gabe, herri hura. Zer zekien ba berak errusiarrei buruz? "Zergatik niri gau osoko galderarik zailena?" pentsatu zuen isiltasunean. Minutu labur baten ostean, begirada enbaxadorearengana zuzendu zuen. Bat bapatean, entzule, ikusle guztien harridurapean, web helbide luze-luze-luze bat eman zuen.

http://rusia.elurra.zuria,gorvachov.vodka,mirestazioa.mosku.metroa.hotza.siberia.matriuskak.gizonak.emakumeak. "Hor aurkituko duzu herri horri buruz dakidan guztia" erantsi zuen.

**Eguzkifte Aranberri**

ASTEKARIA

**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIEIAR
13 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
loarren@lopagunea.com
Helbide informatikoa:
www,topagunea.corrUbarren
AncrrAnarijouEA
Elgaibarko Izarra

LAourrrvura*Elgoitarko Udala **ZUZENDARA** Eli Aapuru KazerAnuot Irati Agirreazaideof Asier Orbea **PUSUZITATEA** Andoitz Agirregomezkoda **MAKETATZAILEA** 8ea Ansola **ACIAMSTRAZIOA** Amaia Rodrigez **GEREATZIA** Jon Peli Uriguen **XOLASORATZAILEAK** Airdna Ledoso, Nestor Fuentes, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Atberto Ansuatogi, Edume Gotzon Anieta, Jon Peli Uriguen. Lorea Perez deAlteniz. Joldn Martinez, Olga Montsekregi, Juanlo Gorostira, Jon GurruWga, Jon Eugi, Ainhoa Andonel, Kokoe K.E. eta Urrauno L.T. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA GOZ011** **GalRielefl libURAlk INPFIONATEGIA** Gertu Koop. E. TonAna 4.025 ale Lea **GOADAILUA** 381.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA itf ZCZ .....

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kabura Sailak eta Fora Aldundiak diruz lagandwako alditkaria.*

kutxa
zun ester

L1NDANOBAT M. LINGOITI GRUPO DATJOBAT 1ESTARTA DANOZ•I

## 1(1)' 311 1111



10"

• Emakume bat etorri zaigu BARRENera Erregeen Kabalgataren egunean bere semeari gertatutako pasadizo bat salatzeko asmoarekin: "Nire umeak kabalgatan irteteko izena eman zuen, eta lehena izan zen gainera. Hala ere, hilaren 5ean, dena prest edukitzeko arropa hartzera joan nintzenean, han bere izenik ez zegoela esan zidan katekista batek. Eta arazoa konpondu beharrean, **mutikoa kabalgatatik kanpo** geratu zen. Egun horretan, nire ustez, garrantzitsuena ez da guztia ondo ateratzea, umeek ondo pasatzea baizik. Nireari, behintzat, **min handia** egin zaio eta haurraren **ilusio guztiak bertan behera** gelditu dira".

## V11£10111

• Gizonezko batek Gabon jaietan, **udaletxeko balkoian, Olentzeroren falta** somatu du nonbait eta honako kexa hau azaltzeko eskatu digu: "Jaiotza badago, baina Olentzero bertakoa izanik! Ea datorren urtean gure Olentzeroz akordatzen diren"- esan digu herritar honek.



• Ama batek **Pilar Ikastetxeak hilaren 21ean antolatu zuen Gabonetako jaialdia txalotu** nahi du: "Irakasleak txalotu nahi ditut, dena horren bikain antolatzeagatik eta baita ikasleak ere, horren une atseginak pasarazi zizkigutelako".

• **Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldekoek Olentzeroren Eguna prestatzen lagundu zieten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete:** "Zeleta eta Ibartxiki baserrikoei; Musika Eskolako dantzari eta soinujoleei, bereziki, Lurdes Odriozolari eta Anabel Arrizabalagari; Janire eta Nere trikitilariei; Itziar eta Olatz txistulariei; gure estilista den Sebas Larrailagari; Baltasar elkarteari, txorizoak egosten laguntzeagatik; Iboni, argazkilari lanetan ibili zen artistari eta parte hartu zuten guztiei. Batez ere, Olentzero eta Mari Domingiri. Eskerrik asko".



# GABONAK A




**Abenduak 21**
Musika Eskolakoen Gahonetako kontzertua. Bertso saioa.



**Abenduak 24**
Olentzero. Goiz herriko kaieetan!



Parrokiako Koruak eta Musika Bandak gabon doinuz alaitu zituzten kaleak.




**Abenduak 28**
Xitipurdi luskizuna Kiroldegian. Presoen aideko kontzentrazioa.








**Abenduak 31**
Itxaropena eta Esoziko Arna *abesbatzaren emanaldia.*



**Urtarrilak 5**
Katekistak antolatutako Erregeen kabalgata eta taiotza biziduna.




# RGAZKITAN

arratsalele








**Abenduak 29**
Gabonzabar Feria. Taloak. barazkiak, aizkdariak...













# € URUA,

**EUROA, URTE BERRIAREKIN BATERA DIR1 BERRIA ETORRI DA GURE ARTERA. KALEK ELKARRIZKETETAN EUROA DA HIZKETA Gi BAITA DENDA ETA TABERNETAN ERE, ETA ESANIK EZ BANKETXEETAKO ILARETAN. TXANPONAK EZIN BEREIZTUTA GABILTZA, BILETEEK BROMETAKOAK DIRUDITE, ETA KONTUAK BURUZ ATERATZEKO ZAILTASUI**



## ROSA ARISTONDO

**66 urte, etxekoandrea**

**Erosketak pezetetan ala eurotan egin dituzu?** Bixekin nabil oindiok, pezetetan eta eurotan. Lehen etxian euki ditxutenak amaitzen nabil, baina dendetan eurotan ematen hasi dia, eta horrekin ibili biharko naiz.

**Nola moldatu zara moneta berriarekin?** Txarki ez naiz moldatu, etxian alabek erakutsi diate eta konpra askorik ez dotenez ein... Zailena iruditzen jata etxian dirua eurotan kontatzen hasi eta errekauak eitxeko zenbat euro bihar ditxuten kalkulatzia. Hala ere, pentsatzen dot ohitxuko naizela, hori nahi nuke behintzat.



## RUTH GARATE

**35 urte, dendaria**

**Nola hartu duzue euroaren etorrera?** Oso ondo, problemarik gabe moldatu gera.

**Ikastarorik egin al duzue eurora moldatzeko?** Federazio merkantilak ikastaro batzuk ernan ditxu Eibarren eta jun gera. Ariketak itxen erakutsi digute. Bestalde, dendan ere ordenadorak prestau ditxugu.

**Herritarren aldetik, urduritasunik somatu al duzue?** Jendiak txartelakin edo eurotan ordaintzen da eta prezivak ere ez ditxu pezetetan eskatzen. Guk ez dakagu pezetarik dendan. Arazo haundixena bankuena da, eurak ez daude diru nahikua emateko prestauta, eta guk pagatzen dogu dana, dirua bankuetatik dator-eta.

**Beherapenetarako neurri berezirik hartu al duzue?** Rebajetan prezio gehixao ipini biharko ditxugu, eta jende aldetik mobimiento gehixao egongo da, baina eurua ez da oztopo izango.

## AMAIA THINTHILA

**28 urte, kamarereoa**

**Arazorik izan al duzue eurora ohitzeko?** Ez, erraz ollitu gara, pentsatzen genuen baino errazago.

**Jendeak zein txanpon erabili du?** Orain jendeareii559 dabil euroekin. Gabonzahar Gauean ez genuen eurorik erabili eta gainera bezerorik ere ez zen etorri euroekin ordaintzera.

**Kanbio nahikoa izan al duzue?** Kanbioekin ongi moldatu gara, eta gainera bezero gutxi etorri da bilete handiekin txanponak eskuratzeko asmoz, etorri direnak betiko klienteak izan dira.

**Aurrez prestaketarik egin al duzue euroa zetorrenerako?Azken** momentura arte ez dugu ezer prestatu, bi diru kutxa eta behar genuen adina kanbio ipini genituen, baina buruz ez gara prestatu, taula batzuk ditugu eta horrekin moldatzen gara.



**Prezioak igo egin dira euroarekln, ezta?** Ostalaritzan prezioak igo egin dira eta gorakada nahiko gogorra izan arren, urtero bezala igo beharra zegoenez, euroaren etorrera horretarako aprobetxatu dugu.

---



*ESKERTZA*

*2001eko abenduaren 17an, 75 urte zituela hil zen MARIA TERESA MATAS COROren sendtak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako dolurninak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# itte berriko dirua

**DITUGU. ARAZOAK ARAZO ETA KEZKAK KEZKA, GUK HERRIAN EUROEKIN DABILEN JENDEARENGANA JO DUGU. KALEKO JENDEAREKIN HITZ EGIN DUGU, BAITA MERKATARIEKIN ERE ETA BANKETXEKO ZUZENDARI BATEKIN ERE IZAN GARA. EUROAREN ETORRERA NOLA HARTU DUTEN AZALDU DIGUTE.**



## FELICIANO ARTEDIE

**68 urte, jubilatua**

**Pezetak ala euroak erabiltzen dituzu?** Euroari kaso gutxi egin diot eta oraindik pezetekin nabil. Dendetan euroak itzuli dizkidaten arren, ez dut ezer ere ulertu.

**Zer dela-eta ez dituzu pezetak banketxean aldatu?** Orain arte ez dut interesik jarri, eta oraindik paperean pezetak dauzkadanez, gastatu artean hauekin ibiliko naiz. Gero derrigor jarri beharko dugu atentzioa, baina dauzkadanak kendu artean ez dut horretarako asmorik.



## IÑAKI GOÑI

**40** urte, bartketxeko zuzendaria

**Nollakoa izan da euroaren etorrera banketxeetan?** Jende abalantxa handia izan dugu, urte amaierak eta euroaren etorrerak bat egin dute eta diru aldaketak, nominak eta dendarien eskariak kontutan hartuta, lanez gainezka egon gara.

**Zergatik sortu da hainbeste pilaketa?** Jendeak ez du kontuan hartu bi hilabetez pezetak erabili ahal izango direla eta ekainera arte astia dagoela pezetak aldatzeko. Beste batzuk euroak hartu eta gorde egin dituzte. Ondorioz, ilarak sortu dira. Gainera jende askok nahiago du leihatilara etortzea, guk azalpenak emango dizkiogulako eta kutxazain automatikoak, aldiz, ez.

**Egon al da herritarrei eskaintzeko nahikoa euro?** Merkatarien kexa da bankuen lana betetzen ari direla, bezeroak bilete handiekin joaten dira kanbioak eskuratzeko. Arazorik handiena merkatariek izan dute, banketxeetara bidali behar zutena baino euro kopuru txikiagoa bidali dutelako.

**Kontu bitxirik gertatu al zaizue euroekin?** Urte bukaeran euromonederoak banatzen hasi ginenean batek baino gehiagok uste izan zuen doan banatzen genituela, eta hauen eske etorri ziren.



## ANA ROSA ONEDERRA

**37 urte, dendaria**

**Ongi moldatu al zarete eurora?** Salneurrietan ez dago bariazio handirik. Beraz, ongi moldatu gara. Lehen kontuak buruz egiten nituen eta orain, berriz, kalkulagailua erabiltzen dut.

**Jendeak nola hartu du** euroa? Jendea urduri samar dab[illegible] Dendan jende gutxi badago, dirua atera eta kontuak lasai egiten dituzte, baina jende asko egonez gero, bilete edo txanpon handia ematen digute, kontuak guk egiteko, komertzio txikiak engainatuko ez dituen uste guztia dute.

**Nahikoa euro izan al duzue esku artean?** Euro bateko eta 2 euroko txanpon gutxi ditugu eta bankuan ere datorren astera arte ez omen dira egongo.

**Bitxikeriarik gertatu al zaizue euroekin?** Jendeak txanpon txikiak nahasten ditu eta bat baino gehiago joan da optikara zenbakiak ikusteko arazoak dituela —eta.



*ESKERTZA*

*2002ko urtarrilaren lean, 81 urte zituela hil zen ANTONIA GURRUTXAGA GARATEren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



2002-1-11

# Juan Mari Mendizabal abenduaren 21ean askatu zuten urtebete eta hiru hilabete kartzelan egin eta gero

## 5 milioi pezetako fidantza ordaindu du Ekin taldeko gainontzeko kideek bezala

**2000**k. irailaren 13an atxilotu zuten Juan Mari Mendizabal elgoibartarra, beste 18 lagunekin batera. Euskal Kulturaren Batzarreko eta AEKko lehendakari izandakoa. euskararen munduan egindako lanarengatik gizon ezaguna da Mendizabal. Ekin antolakundearen aurka Garzon epailearen aginduz egindako "otso beltza" operazioan atxilotu zuten. Euskal Herrian eraikuntza Nazionalean lan egiteko eta herri mugimendua suspertzeko sortu zen Ekin.

**"Askatasuna"ren salaketa**

Garzonek Ekin KASen oinordekoa zela eta ETAren menpe zegoela adierazi zuen. Operazio hartan atxilotutako hainbat kide apirilean utzi zituen aske. "Askatasuna"ren iritziz, "Garzonen bidegabekeria eta gehiegikeria agerian gelditu dira. EKINeko kideen aurka beste frogarik egon ezean apiriletik libre behar zuten kide guztiek".



*Abenduaren 22an ongi etorria egin zioten Plaza Handian.*

Gabonen atarian, abenduaren 21ean kaleratu zuten 5 milioi pezetako fidantza ordainduta. Hurrengo egunean 22an ongi-etorria egin zioten Plaza Handian. Aurreskua dantzatu, soinua jo eta hainbat opari eman zizkioten Mendizabali, eta berak hitz batzuk esan zituen.

**Lariz aske**

Bestalde, Josu Lariz Uruguain azaroaren 12an atxilotutako altzolatarra ere aske utzi zuten egun berean, abenduaren 21ean. Eguerdian laga zuten libre epaiketa egunera arte.




www.kutxa.net

KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK

**Ose Realzaleentzat bakarrik**



Zu bezalako perrsonenuat,Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kubca-Real Sociedad Maestro eta MasterCard** crartel berriak, Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finarnzario guztiez gainera, **opariak ere lortu** ahal izango dituzu,Anoetako partiduetarako **sarreren zozketan** parte hartu, eta **bi pertsonarentzako** bidaia **baten zozketan ere bai, gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.**

Gainera,2002ko **otsailaren I a baino lehen** eskatu eta erabiltzen baduzu, **CD zoragarri bat,Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituena, eramango duzu opari.**



**Eskatu kutxaren bulegoetan edo www.kutxa.net helbidean.**

ralz kutxa
zure diruaren balio erancsia

## Txilarre baserriko Peio Rubiok 2. saria eskuratu zuen Gabonzahar Feriako barazki lehiaketan



Gabonetako ekitaldi nagusienetariko bat Gabonzahar Feria izan ohi da, eta aurten ere, urtero bezala, ferian hainbat lehiaketa izan ziren. gazta, barazkiak, fruituak eta beste hainbat gai jarri zituzten lehian. Barazkien alorrean Txilarre baserriko Peio Rubiok bigarren saria eskuratu zuen; berari eman zioten herriko saltokirik onenaren saria ere. Zeletako Anselmo Salazarri, itxura eta kalitatezko salgaien saria eman zioten eta birlandaturiko mendiak hoperen zaindu dituen baserria Ziarda izan da.



## Urrezko eta zilarrezko dominak eskuratu dituzte Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek Arrasateko Akordeoi jaialdian

"Hauspoz" Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak antolatuta Gipuzkoako XIV. Akordeoi jaialdia ospatu zen Arrasaten abenduan. Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek parte hartu zuten lehiaketan, eta Naia Membrillerak, Nagore Diegok, Esther Gonzalezek, Laura Agirregomezkortak eta Alasne Urangak urrezko domina eta diploma jaso zuten. Maitane Huidobrok, Tamara Azkoitiak, Alazne Eskuderok, Elisabeth Padredak, Laura Vegasek, Ainhoa Zapatak eta Maitane Huidobrok osatutako seikoteak zilarrezko domina jaso zuen. Maitane Huidobrok bakarka ere zilarrezko domina eskuratu zuen Amaia Vegasek bezalaxe.

## 20.000 bisitari inguru izan ditu Parrokiako jaiotzak Gabonetan



Abenduaren 19an inauguratu zuten Parrokiako jaiotza eta Gabonetan zehar haur eta gazte, herritar zein kanpoko, guztira, 20.000 lagun inguru izan dira bisitan. Jaiotzako batzordekoek esan digutenez, trenean ere, kanpotik familia osoak etorri dira."Oso balorazio positiboa egin behar dugu". Oraindik jaiotza bisitatu ez dutenak eta horretarako gogoa daukatenak garaiz daude, San Anton Egunera arte, urtarrilaren 17ra arte, zabalik egongo baita. Kanpoko eskoletatik ere etorri dira jaiotza ikustera. Antolatzileek esan digutenez, talderen batek, ordutegitik kanpo bada ere, ikusi nahi badu, dei dezatela 943 74 33 46 telefonora eta zabltzeko prest daude.

## GABONETAKO ZOZKETEN ZENBAKI SARITUAK

Gabon jaietan ohikoa izan ohi da talde eta elkarte ezberdinek zozketak egitea. Herritarrei sarituak izan diren zenbakien berri emateko. Hona hemen zerrenda.

**C.D. ELGOIBAR**

**I. saria:** 1.490/25.006 (Ordezkoa)
**2. saria:** 25.451 (azaldu da saritua)

**MISQUI ELKARTASUN TALDEA**

**I. saria:** 17.956 (Zumarragan saldua)
11599-4.065 (ordezkoak)
**2. saria:** 1.627/13.207 (ordezkoa)
**3. saria:** 3503/3.776 (ordezkoa)

**TXANKAKUA MERKATARI ELKARTEA**

**1. saria:** 46.309/33.608 (ordezkoa)
**2. saria:** 93.016/18.444 (ordezkoa)
**3. saria:** 75.799/00.659 (ordezkoa)
**4. saria:** 83.230/46.588 (ordezkoa)

Elkarte hauek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei beraien laguntzarengatik.

# ABENDUA

Atal honetan zuen seme alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elketronikora.

## Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 12 Elxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 13 Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 14 Fernandez | Fernandez |
| 15 Yudego | Yudego |
| 16 Etxeberria (Sanra Ana kalean) | Etxeberria |
| 17 Zabaleta | Zabaleta |
| 18 Ibaliez | Ibañez |

**FARMAZIAK**

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Sorafuze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
'eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

13 igandea Dolia Mercedes



Julen Almenara Alberdi.
Abenduak 4.
Juan Carlos Almenara eta Irune Alberdi.



Gaizka Loiola Etxabe.
Abenduak 12.
Isaac Loiola eta Susana Etxabe.



Roke Alvarez Vela.
Abenduak 15.
Alvarez eta Ibare Vela.



Nerea Iraola Urbieta.
Abenduak 10.
Manuel Iraola eta Yolanda Urbieta.

### EZKONTZAK

Abenduan ez da ezkontzarik izan Elgoibarren.

Antonio Valenciano,
90 urte, abenduak 3

Manuel Martin,
68 urte, abenduak 9

Alejandro Barrenetxea,
74 urte, abenduak 10

Mari Tere Matas,
75 urte, abenduak 17

Juan Mecolalde,
84 urte, abenduak 20

Delfin Vazquez,
81 urte, abenduak 25

Carmelo Modamio,
67 urte, abenduak 29


ETXEBERRIAS

riiletd zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK*



NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

2001 ko uriarrilo/X. uriea/388. zkia

# BaR n

elkarrizl lC°

GEHIGARRIA - HILEKO

*ssSoinujoliak kobratzen zaban, baina nik ez naban ezer jasotzen - erromerixetan panderua jotziagaitxik"*



Julona Zublzarreta

# Juliana Zubizarreta

## "Erromerixetan, soinujolia

*JULIANA ZUBIZARRETA, 91 URTE, DATORREN HILEAN BETEKO DIT U 92 (ZORIONAK BERAZ ALDEZ AURRE77K). SAN LORENTZ0 BAILARAKO ARMA1TXA-BEHEKOA BASERRIANJAIOA ETA ALDAPA BASERRIRA EZKONDUA. PANDEROJOLEA BER4, KATALOTZARI LAGUN EGINEZ HAMAIKA ERROMERIA GIROTUTAKOA. INGURUKO BAILARETAN NORK EZ DU EZAGUTZEN JULIANA? KALEAN ERE ASKO IZ,ANGO DIRA EMAKUME ALAI HONI BURUZKO ENIZUIERIK DUTENAK BESVE BATZURI, ORDEA, SINESTEA ERE ZAILA EGINGO ZAIE 90 UR7LIIK GORAKO EMAKUME BAT PANDEROA ASTIIVTZEN IMAJINAIZEA IRUDIMENA AHAZTU ETAJULIANAK BERE ERREALITATEARI BURUZ HITZ EG1NDAKOAK ZUENGANATU DTHIGU. EZAGUIZEN DUZUENOK BERE IRRIBARREAZ ETA HITZEZ GOZATZEKO ETA GAINOIVTZEKOOK, BERE BERRI IZATEKO.*



**Zuretzat bizio bat omen da panderoa jotzea. Nola hasi zinen?**

Amakin abarketak josten nitxuan eta berak esan zian, "abarketak ondo josten baditxuzu nik ekarriko dizut panderua". Neure kasa ikasi naban belarriz, beti gustau izan jata-eta trikitixa.

**Erromerian leku askotan aritutakoa izango zara, ezta?**

16 urtekin **hasi** nintzan erromerixan eta lehenengo Loiolara jun ginan Katalotza eta bixok, han pieza batzuk grabau genduzen. Donostian Trinidade Plazan ere jotakuak gera. Hemen inguruan ere, hasi Arraten eta buelta guztixan ibilitxakua naiz panderuakin.

**Erromeriak girotzearren ezer ematen al zizuten?**

Panderua jotziagaitxik ez naban ezer kobratzen, soinujoliak bai, baina panderojoliak ez. Noiz edo noiz erregalotxoren bat-edo eman izan die. Nere borondatia alaitasuna ipintzia izaten zan.

**11 Entsaioak nola egiten zenituen?**

Entzundakuakin ikasi dot dakitxen apurra. Batere entsaiau gabe juten nintzan erromerixara. Katalotzak eta bixok alkar ondo hartzen genduan eta ez zauan ensaio biharrik.

**Soinujole askorekin jo izan al duzu panderoa?**

**Katalotzakin ibili** izan naiz gehixen. Kurutzeta baserrixan jo genduan lehenengo bider, eta ointxe arte, alkarrekin ondo moldatzen gera-eta. Ostantzian, Lajakin, Mendaroko Ospasekin... ere jotakua naiz. Noiz edo noiz bakarrik ere bai.

**Eta soinurik gabe jo al duzu inoiz?**

Jose Mari Iriondok telebistan entrebista bat ein ostian, panderua joteko eskatu zian, baina batere soinurik gabe, eta neretzat oso pobre geratzen da panderua bakanik. Lehen zaratia atera ezkero danak aidian ipintzeko gai ginan. Inoiz jo naban panderua bakarrik soinujolerik ez nakalako, baina aukeran, soinua eta panderua bixak batera nahixao ditxut.

Hainbeste urtetan zenbat **pandero apurtutakoa** zara?

Apurtu asko ez, bat edo bi bakarrik, eskuak zatarrak euki arren, kurioso ibiltzen nintzan, itxuria. Batzuk erregalautakuak,

# tablautik bajau eta c antza itxeri lagatzen zian"

"ENTZUNDAKUAKIN IKASI DOT DAKITEN APURRA. BATERE ENTSAIAU GABE JUTEN NINTZAN ERROMERIXARA"



nik hartutakuak bestiak, asko euki nitxuan. Oin ere zazpi-edo badaukadaz gordeta, pentsatzen dotenian erabiltzeko.

**I Musika estiloak piskanaka aldatuz doazen honetan, jendeak oraindik estimatzen al du trikitia?**

Nere ustez, bai. Badao jendia, lehengua eta oingua trikitixa asko gustatzen jakona, agarrauak ere, nola ez. Horregatxik ikusten dia trikitilarixen jaixak oindikan ere. Nik gehixao entenditzen dot lehengo trikitixa, oinᵹuak modernuauak dia-eta.

**Zer behar du panderojole onak?**

Soinujolearekin ondo hartzia. Panderista ona izanagatikan soinujoliakin ondo hartzen ez bada, batere ez da. Soinujoliakin batera ibili bihar da bere martxan, eta horretarako belarri ona euki bihar da eta atentziva ipini bihar jako soinujoliari. Ni ibili izan naizen danekin ondo arreglau naiz, eurek behintzat baietz esan die.

**Panderoa jotzkaz gain, dantza egitea ere gustatzen zitzaizula entzuna dugu.**

Bai, asko. Nahiz eta ondo jakin ez, asko gustau izan jata trikitixa dantzan eitxia. Erromerixetan nahixao izaten naban dantzara urtetzia, baina panderua jotzen beste inork ez zakixan eta... Hala ere, soinujoliak tablautik bajau eta pieza batzutan dantza eitxen lagatzen zian, askotan gehixao nahi, baina bixak ondo ezin ein.

**Nola gogoratzen dituzu lehengo erromeriak?**

Oinguetatik diferentiak zian. Pare bat edo hiru orduan jotzen eoten zan soinujolia, eta iluntzen hasten zanian, amaitzen zan plazakua, gero erretirau, norberak ikusten zabanian, baina... Oin ilundu eta gero hasten dia erromerixak.

**Zer eman dio trikitixari Juliana Zubizarretak?**

Nere ahalegin guztiekin, indarra, eta aurrera ere ematia gustauko litzaidake.

**I Oraindik jotzen omen duzu panderoa noizean behin.**

Bai, jun zan urrian, bukaera partian, jo naban hemen, baserrixan. Soinujole bat etorri zan bisitan eta berakin pieza batzuk jo nitxuan. Oindiok gustora jotzen dot eta gauza naizen bitxartian esaten dienakin zerbitzeko konforme eongo naiz.

"LEHEN ILUNTZEN HASTEN ZANIAN AMAITZEN ZAN PLAZAKUA, OIN ILUNDU ETA GERO HASTEN DIA ERROMERIXAK"

**IBeraz, Aldapan ez da sekula pandero holsik eta kanturik faltako, ezta?**

**Nere** seme-alabak ez dia kanturakuak izan, dantzan, berriz, gustau izan jakue, eta dantzari politxak dia, gainera. Neri gaztetan kantuan eitxia gustatzen jatan, baina oin eztarrixak ez dia lagun eitxen eta panderua jo bakarrik eitxen dot.

**Zure bideari jarraituko dion panderojolerik ba al daukazu etxean?**

Bai, loibia, semerik gaztienan alaba, Aitziber. Nere ustez oso ederki jotzen dau panderua.

**I Panderojole moduan ezagutzen zaitu jendeak, baina bizitzan beste gauza asko egingo zenituen, ezta?**

Aitxa gazterik hil jatan eta amakin eta anai-arrebekin bizi izan nintzan. 14 urtekin urten naban zerbitzen, baserritxik-baserrira. Gero, 21 urtekin, Aldapa baserrira ezkondu nintzan. 7 seme-alaba euki nitxuan eta ordutik ,beti baseniko lanian ibili izan naiz, astuan moduan, baina beti osasunakin.

**Juliana, beti irribarrea daukazu aurpegian. Zein da zoriontsu izateko errezeta?**

**Berez** alaixa naiz, eta alaitxasuna ere gustau eitxen jata. Batzutan bihotza batera eta arpeixa bestera eukitzen dou, baina...

# atzera begira

## pausoz pauso

- Orain dela 91 urte jaio zen San Lorentzo bailarako Armaitxa-Behekoa baserrian.

- 14 urterekin zerbitzera atera eta baserriz baserri ihili zen 21 urterekin ezkondu eta Aldapa baserrira bizitzera joan zen arte.

